



LEHENDAKARITZA

*Azterlan eta Lege Araubide
Zuzendaritza*

Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

PRESIDENCIA

*Dirección de Estudios y
Régimen Jurídico*

Gabinete de Prospección Sociológica

EAEko biztanleak eta kirola
***La población de la CAPV y
el deporte***

(SHEE / IVEF)

2004ko uztaila
Julio 2004



Aurkibidea / Índice

SARRERA / INTRODUCCIÓN	1
LABURPENA / SÍNTESIS	4
A – KIROLARI BURUZKO IRITZIAK / OPINIONES ACERCA DEL DEPORTE	9
• Kirolzaletasuna / Afición al deporte	10
• Kirolaren onurak / Beneficios del deporte	12
• Kirolarekiko interesa eta praktikaren araberako tipologia / Tipología según interés y práctica deportiva	15
B – KIROLA EGITEA / PRÁCTICA DE DEPORTE	18
• Kirolgileen kopurua / Número de practicantes	19
• Egiten diren kirolak / Deportes practicados	21
• Kirol-instalazioak / Instalaciones deportivas	27
• Urtaroen araberako kirol praktika / Práctica deportiva según épocas del año	30
• Kirola egitearen maiztasuna / Frecuencia de la práctica deportiva	32
• Kirol jardunaren iraupena / Duración de la práctica deportiva	35
• Kirol jardunaren intentsitatea / Intensidad de la práctica deportiva	37
• Kirol praktikaren araberako bizimoduak / Estilos de vida según práctica deportiva	39
C – KIROLAREKIKO MOTIBAZIOAK / MOTIVACIONES EN TORNO AL DEPORTE	41
• Kirola egiteko arrazoiak / Motivos para practicar deporte	42
• Kirola ez egiteko arrazoiak / Motivos para no practicar deporte	45
D – EUSKAL SELEKZIOAK / SELECCIONES VASCAS	48
• Euskal kirol selekzioak / Selecciones deportivas vascas	49
ZEHAZTASUN TEKNIKOAK / FICHA TÉCNICA	51

Sarrera / Introducción

Helburuak / Objetivos

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) herritarrek kirolari buruz dituzten iritziak ezagutzeko da txosten honen helburua, zehatzago, kirolzaletasuna, kirolarekiko motibazioak eta kirol praktika.

Kasu batzuetan Estatuko edo 2004ko maiatzaren 1ean izandako zabalkuntza aurretik Europar Batasuna osatzen zuten 15 herrietako datuak dauzkagu, beste kasu batzuetan EAEko lehenagoko (hain zuzen ere, 1995eko edo 2000ko) datuak ditugu. Horrela aztertutako datuekin konparazio geografikoak eta kronologikoak egin ditzakegu.

El objetivo del presente informe es conocer **la opinión de los ciudadanos y ciudadanas de la CAPV sobre el deporte**, más concretamente su afición al deporte, sus motivaciones y su práctica deportiva.

En algunos casos disponemos de datos del Estado o incluso de la Unión Europea (de los 15 países anteriores a la ampliación del 1 de mayo de 2004), en otros casos disponemos de datos de la CAPV de años anteriores (más concretamente de 1995 o 2000), con lo cual podemos establecer comparaciones geográficas y cronológicas de los datos analizados.

Informazio iturria / Origen de la Información

Lan honetako emaitzak **2004ko apirilean-maiatzean** Euskal Soziometroren bildumaren 25. ikerketan erabilitako galdesortan berariaz sartutako galdera multzo batetik datoz.

Galdera zehatzak **Soin Hezkuntzako Euskal Erakundearen (SHEEren) eskaera** baten ondorioz landu dira, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin elkarlanean.

Los resultados de este trabajo proceden de un bloque de preguntas *ad hoc* incluidas en el cuestionario del estudio nº 25 de la serie de Sociómetros Vascos, **realizado en abril-mayo de 2004**.

Las cuestiones concretas planteadas han sido elaboradas a partir de una **petición del Instituto Vasco de Educación Física (IVEF)**, y en colaboración con el Gabinete de Prospección Sociológica de la Presidencia del Gobierno Vasco.

Datuen azterketa / Análisis de los datos

Esan behar da, inkestaren **gutzizko emaitzak** bi era ezberdinetan aurkeztu ditugula: batetik 16 urte eta gehiagoko biztanleria orokorrari dagokion gutzitza eta, bestetik, 16-65 urteko jendeari dagokiona. Bigarren gutzitza hori alderatu ahal izateko aurkeztu da, Centro de Investigaciones Sociológicas-ek (CISek) aurkeztutako 1995eko datuak horrela baitaude, bai Estatu osorako, bai EAERako. Pasatu den denbora tartea dela eta izandako aldaketak direla eta, Estatuko 1995eko datuak EAEko data bereko datuekin konparatu dira (konparazio geografikoa eginez) baina inoiz ez EAEko 2004ko datuekin. EAEko 1995eko datuak, berriz, 2004koekin konparatu dira, iritzi eta ohituren aldaketa kronologikoak ikusi ahal izateko.

Aipatutako CISekiko alderaketak egiteaz gain, galdera zehatz batzuetan EAEko aurreko datuekin konparatu da (Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen datuekin, hain zuzen ere) edo Eurobarometrotik ateratako 2003ko Europako datuekin. Kasu bietan 16 urte eta gehiagoko biztanleria da konparaziorako oinarria.

Inkestaren datuak biztanleriaren osotasunean ez ezik **segmentazio soziodemogra**

Hay que señalar que los resultados **totales** de la encuesta se presentan de dos formas: por un lado, un total correspondiente a la población general de 16 y más años y, por otro lado, los datos totales correspondientes a las personas de 16 a 65 años. Este segundo total se presenta a efectos comparativos, dado que los datos de 1995 del Centro de Investigaciones Sociológicas (CIS) corresponden a este tramo de edad, tanto para el Estado como para la CAPV. Debido al lapso de tiempo transcurrido desde entonces y a las diferencias que han podido acaecer, los datos del Estado de 1995 se compararán con los datos de la CAPV de esa misma fecha (para establecer una comparación geográfica) y nunca con los datos de la CAPV de 2004. En cambio, los datos de la CAPV de 1995 sí se compararán con los datos de la CAPV de 2004 para observar la evolución cronológica de las opiniones y costumbres.

Además de las mencionadas comparaciones con los datos del CIS, se han realizado, en algún caso concreto, comparaciones con datos anteriores de la CAPV (concretamente con datos del propio Gabinete de Prospección Sociológica) o comparaciones con datos europeos obtenidos del Eurobarómetro, correspondientes a 2003. En ambos casos, las

fikoen arabera ere aztertu dira. Segmentaziorako aldagai soziodemografiko eta jarre-razkoak, hau da, inkestako gizarte taldeak desberdintzen dituzten galderak, taulen zutabeetan azaltzen dira, dagokion adierazle soziologikoan desberdintasun adierazgarriak sortzen dituztenean (datuak kolektiboka aurkezten direnean EAEko 16 urte eta gehiagoko biztanleria hartzen da oinarritzat). Ondokoak dira aldagai horiek (sortutako azpitaldeak letra etzanean azaltzen dira):

- Lurraldea: *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa*.
- Sexua: *gizonezkoa eta emakumezkoa*.
- Adin taldeak: *16-17, 18-29, 30-45, 46-64 eta >=65*.
- Ikasketa maila: *<lehen mailakoak, lehen mailakoak* (lehen mailakoak, oinarritzatko batxilergoa, OHO), *bigarren mailakoak* (lanbide heziketa, goi-mailako batxilergoa, IEE, BBB, UBI), *goi-mailakoak* (diplomaturak, lizentziaturak, doktoretzak, graduondokoak).
- Hautemandako klase soziala: *baxua, erdikoa, altua*.
- Kirolzaletasuna: *batere ez, apur bat zalea, oso zalea*.

comparaciones se establecen en relación a la población total de 16 y más años.

Los datos de la encuesta son analizados, no sólo desde los totales poblacionales, sino también en base a **segmentaciones sociodemográficas**, en función de las diferencias significativas entre los diversos colectivos sociales (cuando los datos se presentan por colectivos se parte de la base de la población de la CAPV de 16 y más años). Las variables diferenciadoras consideradas (y los subcolectivos formados, que aparecen en cursiva) son las siguientes:

- Territorio: *Araba, Bizkaia y Gipuzkoa*.
- Sexo: *varón y mujer*.
- Grupos de edad: *16-17, 18-29, 30-45, 46-64 y >=65*.
- Nivel de estudios: *<primarios, primarios* (primarios, bachiller elemental, EGB), *secundarios* (profesionales, secundarios, bachiller superior, REM, BUP, COU), *superiores* (diplomaturas, licenciaturas, doctorados, postgrados).
- Clase social sentida: *baja, media, alta*.
- Afición al deporte: *nada, un poco, mucho*.

Laburpena / *Síntesis*

Puntuz puntu / Punto por punto

ZER IRITZI NAGUSI DITUGU KIROLARI BURUZ?

EAEko 16 urte eta gehiagoko herritarren %40k, kirola egin ala ez, oso kirolzaleak direla diote, beste %35ek apur bat kirolzaleak direla diote eta %24k batere kirolzaleak ez direla. Kirolzaletasun hori nabarmen handiagoa da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino, baita ere gazteagoak izan ahala.

Zehatzago, herritarren %27k kirola interesatzen zaiela eta nahikoa egiten dutela diote, beste %27k interesatzen zaiela baina ez dutela nahi duten beste egiten diote, %21ek interesatzen zaiela, lehen egiten zutela baina jadanik ez dutela egiten diote, %16k ez dutela egiten ezta interesatu ere, %5ek inoiz ez dutela egin baina gustatuko litzaiakela eta %3k, interesik ez izan arren, behartuta (gaixotasunagatik, klaseengatik, lanagatik,...) egiten dutela aitortu dute.

Kirolaren onurei dagokienez, 15 urtetik gorako biztanleen %96 ados daude kirola egiteak sasoiari jartzen duela eta osasun iturria delako baieztapenarekin; %90 ados daude kirola egiteak besteekin erlazionatzen eta lagunak egiten laguntzen duelakoarekin; %87 kirola modu onean agresibitatea eta umore txarra kentzeko ihesbidea delakoarekin; %86 kirola egiteak intentsitate handiagoz bizitzen eta ohiko bizitzaren monotonia apurtzen laguntzen duelakoarekin; eta %78 kirola egiteak bizitzaren eragozpenak gaintuzten laguntzen duela eta norbere burua hezi eta diziplinarazteko bidea delakoarekin.

ZELAKO KIROL JARDUERA DAGO EAE-N?

EAEko 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren erdiak baino apur bat gehiagok (%53k) kirola egiten dutela diote (%31k kirol bat eta %22k bat baino gehiago). Nerabeek eta oso kirolzaleek gainontzekoek baino kirol gehiago egiten dute.

Gehien egiten diren kirolak hauek dira: oinez ibili (kirola egiten dutenen %29 ibiltzen dira), igeriketa (%21) eta txirrindularitza (%19). Egindako kirolen artean alde nabarmenak daude adina eta sexuaren arabera: zenbat eta zaharragoa izan orduan eta jende gehiagok diote ibiltzen direla, nerabeek, aldiz, futbola eta saskibaloia egiten dituzte gehien, eta 18-45 bitartekoek igeriketa eta txirrindularitza nahiago dituzte. Emakumezkoek ibiltzea, igeriketa, mantentze-gimnasia, aerobica edo antzekoak egiten dituzte gehien, eta gizonezkoek emakumezkoek baino nahiago dituzte txirrindularitza, mendia, futbola, futbitoia eta pilota.

Kirola egiteko gehien erabiltzen diren tokiak leku ireki publikoak dira (kirola egiten dutenen %75ek leku horietan egiten dute), eta horien ondoren instalazio publikoak hobesten dira (%45ek). Askoz gutxiago dira beste motatako instalazioak erabiltzen dituztenak: gimnasio pribatuak (%9k), klub pribatuak (%7k), ikastetxeetako instalazioak (%6k), etxea (%5ek) edo bestelako lekuak (%1ek).

¿QUÉ OPINIONES GENERALES TENEMOS SOBRE EL DEPORTE?

El 40% de los ciudadanos y ciudadanas de la CAPV de 16 y más años dice ser muy aficionado al deporte, independientemente de que lo practique o no. Otro 35% se declara un poco aficionado al deporte y un 24% nada aficionado. Esta afición es notablemente superior entre los varones que entre las mujeres y también se incrementa a medida que desciende la edad.

Más concretamente, un 27% de la ciudadanía señala que le interesa el deporte y lo practica suficientemente, otro 27% que le interesa pero no lo practica tanto como quisiera, un 21% que le interesa, lo ha practicado pero ya no lo practica, un 16% que no lo practica ni le interesa, un 5% que nunca lo ha practicado pero le gustaría hacerlo y un 3% que, aunque no le interesa, lo practica por obligación (enfermedad, clases, trabajo).

En cuanto a los beneficios del deporte, el 96% de la población mayor de 15 años se muestra de acuerdo con la opinión de que el deporte te permite estar en forma y es una fuente de salud, un 90% está de acuerdo con que hacer deporte permite relacionarse con los demás y hacer amigos; un 87% con que el deporte es como una válvula de escape para liberar, saludablemente, la agresividad y el mal humor; un 86% con que hacer deporte te permite vivir más intensamente y ayuda a romper la monotonía de la vida cotidiana; y un 78% con que hacer deporte te ayuda a superar obstáculos en la vida y es un medio para educarse y disciplinarse.

¿QUÉ PRÁCTICA DEPORTIVA HAY EN LA CAPV?

Algo más de la mitad de la población de la CAPV de 16 y más años (53%) dice practicar deporte (el 31% un deporte y otro 22% varios). La práctica deportiva es superior entre las y los adolescentes y entre las personas muy aficionadas al deporte.

Los deportes más practicados son andar (practicado por el 29% de quienes hacen deporte), nadar (21%) y andar en bicicleta (19%). Hay notables diferencias en los deportes practicados en función de la edad y del sexo: a medida que aumenta la edad se incrementa el número de quienes dicen andar; los y las adolescentes, por su parte, se decantan principalmente por el fútbol y el baloncesto, mientras que quienes tienen entre 18 y 45 años prefieren la natación y el ciclismo. Las mujeres optan más por andar, nadar, hacer gimnasia de mantenimiento, aeróbica o similares, y los hombres prefieren más que ellas el ciclismo, montañismo, fútbol, futbito y pelota.

Las instalaciones más utilizadas para esta práctica de deporte son los lugares abiertos públicos (75% de quienes hacen deporte), seguidos de las instalaciones públicas (45%). Son muchos menos quienes utilizan los gimnasios privados (9%), los clubes deportivos privados (7%), las instalaciones de los centros escolares (6%), el domicilio particular (5%) u otros lugares (1%).

Kirol jarduera hori nahikoa erregularra da: kirola egiten dutenen %54k urte sasoi guztietan berdin egiten dutela diote, %32k udan gehiago egiten dutela diote, beste %8k neguan gehiago eta %5ek kurtsuan zehar.

Kirola egiten dutenen artean, %61ek astean hiru aldiz edo gehiagotan egiten dutela adierazi dute, %32 astean behin edo bitan, %6k gutxiagotan eta beste %1ek bakarrik oporretan. %16k astean bat edo bi ordu ematen dituzte kirola egiten, %35ek hiru ordutik bost ordutara, %25ek sei ordutik zortzi ordutara eta %20k zortzi ordu baino gehiago. Gainera, %30ek intentsitate arinaz egiten dutela diote, %51k intentsitate moderatuaz, %17k intentsitate biziak eta %2k oso intentsitate biziak.

Kirola (bat edo gehiago) gutxienez astean hiru aldiz, 30 minututako gutxienezko iraupeneko saioetan eta intentsitate moderatuaz edo handiagoaz egiten dutenak kontuan hartuta, oro har, EAEn 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren %22k bizimodu aktiboa dutela dakusagu. Bizimodu aktibo hori ez du gehiengoak jarraitzen inolako kolektibotan, baino ugariagoa da nerabeen eta oso kirolzaleen artean.

ZELAKO ARRAZIOIAK DAUDE KIROLA EGITEKO EDO EZ EGITEKO?

Kirola egiten dutenek horretarako eman dituzten arrazoirik nagusienak ondokoak dira: ariketa fisikoa egiteagatik (kirola egiten duten 16 urte eta gehiagoko biztanleen %59k aipatuta), osasuna mantendu eta/edo hobetzeko (%56k) eta dibertitzeko (%43k). Gainera, %36k kirola gustatzen zaielako egiten dutela diote, %21ek lagunekin egiteko, %13k lirain, argal egoteko, %10ek ihesbidea delako, %3k lehia, norgehiagoka gustatzen zaielako eta beste %4k beste arrazoiengatik.

Bestalde, kirola egiten ez dutenek ez egiteko emandako arrazoirik nagusienak asti falta eta alferkeria edo gogo falta dira (kirola egiten ez duten EAEko 15 urtetik gorakoen %44k eta %33k, hurrenez hurren, aipatuta). Gutxiagok adierazi dute adina (%25ek), kirola ez zaiela gustatzen (%20k), osasuna (%16k), edo oso nekatuta irteten direla lanetik edo ikasketetatik (%10ek). Oso gutxi dira ondoko arrazoiak esan dituztenak: ez daukatela kirol-instalaziorik hurbil (%2k), ez dagoela kirol-instalazio egokirik (%1ek), kirolari ez diotela onurarik edo probetxurik ikusten (%1ek), eskolan ez zietela irakatsi egiten (%1ek) edo bestelako arrazoiak (%6k). Aipatu behar da 64 urtetik gorakoentzat kirola ez egiteko arrazoirik garrantzitsuena adina dela.

ZENBAT EGONGO LIRATEKE EUSKAL KIROL SELEKZIOEN ALDE?

EAEko 15 urtetik gorako biztanleen %64 nazioarteko txapelketa ofizialetan Euskal Herriaren izenean jokatuko luketen euskal kirol selekzioak izatearen aldekoak lirateke; %4k kirol batzuetan bai baina beste batzuetan ez lukete horrelako selekziorik nahi izango; %14 euskal kirol selekzioen kontra agertu dira; eta gainontzeko %17k ez dute inolako iritzirik eman.

Esta práctica deportiva es bastante regular: el 54% de quienes practican deporte dicen hacerlo en todas las épocas del año por igual, otro 32% dice hacer más en verano, otro 8% más en invierno y un 5% durante el curso.

Entre quienes hacen deporte, el 61% dice practicarlo tres o más veces a la semana, un 32% una o dos veces a la semana, un 6% con menor frecuencia y otro 1% únicamente en vacaciones. El 16% dedica 1 ó 2 horas semanales a hacer deporte, el 35% de 3 a 5 horas, el 25% de 6 a 8 horas y un 20% más de 8 horas. Además, un 30% señala hacer deporte con una intensidad ligera, un 51% moderada, un 17% intensa y un 2% muy intensa.

Teniendo en cuenta a quienes hacen deporte (uno o varios) al menos tres veces por semana, con sesiones de duración mínima de 30 minutos y con una intensidad al menos moderada, se observa que, en general, en la CAPV el 22% de la ciudadanía de 16 y más años tiene un modo de vida activo. Este modo de vida activo no llega a ser mayoritario en ningún colectivo, si bien es más elevado entre las y los adolescentes y entre los y las muy aficionadas al deporte.

¿QUÉ MOTIVOS HAY PARA PRACTICAR O NO PRACTICAR DEPORTE?

Las razones más señaladas para hacer deporte por parte de quienes lo practican son: por hacer ejercicio físico (59% de la población de 16 y más años que hace deporte), para mantener y/o mejorar la salud (56%) y por diversión (43%). Además, un 36% señala que lo hacen porque les gusta el deporte, un 21% por estar con los amigos y amigas, un 13% por cuidar la línea, un 10% para evadirse, un 3% porque les gusta la competición y otro 4% señala otras razones.

Por su parte, las razones más aducidas para no hacer deporte por parte de quienes no lo practican son la falta de tiempo y la pereza o desgana (mencionadas por el 44% y 33%, respectivamente, de los ciudadanos y ciudadanas de la CAPV mayores de 15 años que no practican deporte). Algunos menos señalan la edad (25%), que no les gusta hacer deporte (20%), la salud (16%) o que salen muy cansados del centro de trabajo o estudio (10%). Muy pocos mencionan que no hay instalaciones deportivas cerca (2%), que no hay instalaciones deportivas adecuadas (1%), que no le ven utilidad o beneficios (1%), que no les enseñaron en la escuela (1%) u otras razones (6%). Hay que señalar que para los y las mayores de 64 años la razón más importante para no hacer deporte es la edad.

¿QUÉ APOYO TENDRÍAN LAS SELECCIONES DEPORTIVAS VASCAS?

El 64% de la población de la CAPV mayor de 15 años sería partidario de la existencia de selecciones deportivas vascas que representaran al País Vasco en competiciones internacionales oficiales; un 4% sería partidario de su existencia en algunos deportes pero no en otros; un 14% se muestra contrario a la constitución de selecciones deportivas vascas; y el 17% restante no emite ninguna opinión.

Beste lurraldeekin alderatuz / Respecto a otros ámbitos geográficos

EAEko Europako batez bestekoa baino sarriago egiten da kirola (2004ko zabalkutza-aren aurreko 15 herrialdeetako Europaz ari gara). Kirola gutxienez astean behin egiten duten herritarrek EAEn baino gehiago dira Finlandian, Suezian eta Danimarkan bakarrik.

La frecuencia de la práctica deportiva en la CAPV es superior a la media europea (Europa de los 15 anterior a la ampliación de 2004). Las ciudadanas y ciudadanos de la CAPV que dicen practicar deporte al menos una vez a la semana únicamente son superados por las y los nórdicos (finlandeses, suecos y daneses).

Aurreko neurketekin alderatuz / Respecto a períodos anteriores

2000 eta 2004aren artean kirolzaletasunak ez du alde handirik izan biztanleria orokorrarengan.

Baina 1995etik 2004ra 16-65 urte dituztenen artean igo da kirolarekiko interesa sentitu eta nahikoa egiten dutenen ehunekoa, baita, nahiz eta interesatu, nahi duten beste egiten ez dutenena ere. Gehitu egin da ere kirolari antzemandako onura gutxiakiko adostasuna.

66 urtetik beherakoekin jarraituz, azken bederatzirteotan beren kirolaren jardueragehitu da, baita bere maiztasuna eta erregularitasuna ere. Nahikoa igo da ere kirola egiteko leku ireki publikoen erabilera.

Kirola egiten dutenak gehiago izateko arrazoien artean osasuna mantendu eta/edo hobetzeko egiten dutela diotenak nabarmen gehitu direla dakusagu.

Kirola egiten ez dutenen artean ondoko aitzakiak gutxiago aipatu dira: adina, kirola egitea ez zaiela gustatzen, ez diotela onura edo probetxurik ikusten ezta eskolan ez zietela irakatsi ere; alferkeriaren arrazoia, berriz, gehiago adierazi da.

Bukatzeko, euskal kirol selekzioen alde daudenak, nahiz eta gehienak izan, 2000tik hona zertxobait eskatu dira.

La afición al deporte no ha variado entre la población general del 2000 al 2004.

Entre quienes tienen entre 16 y 65 años sí ha aumentado de 1995 a 2004 el porcentaje de quienes señalan que les interesa el deporte y lo practican suficientemente o, aún interesándoles, no lo practican tanto como quisieran. También se ha incrementado el acuerdo con todos los beneficios reconocidos al deporte.

Continuando con las y los menores de 66 años, en los últimos nueve años se ha incrementado su práctica deportiva, así como su frecuencia y regularidad. Ha aumentado considerablemente también el uso de los espacios públicos para realizar dicha práctica deportiva.

Entre las razones para dicho incremento en el número de quienes hace deporte, se observa un destacado aumento de quienes señalan que realizan deporte por mantener o mejorar la salud.

Entre quienes no hacen deporte, ha descendido la mención de los siguientes pretextos para no hacerlo: la edad, que no les gusta hacer deporte, que no le ven utilidad o beneficios o que no les enseñaron en la escuela; la mención de la pereza, en cambio, se ha incrementado.

Finalmente, el apoyo a las selecciones nacionales vascas, pese a continuar siendo mayoritario, ha descendido algo respecto al año 2000.

AZKEN BURUAN / EN DEFINITIVA

EAEko biztanleriaren erdiak baino apur bat gehiagok kirola egiten dute, eta Europako batez bestekoak baino sarriago, gainera. Dena dela, nahikoa gutxiago dira (ez dira biztanleen laudenera iristen) bizimodu aktiboa dutenak, jardute, maiztasun, iraupen eta intentsitate parametroen arabera.

Gehien egiten diren kirolak ibiltzea, igeriketa eta txirrindularitza dira, batez ere leku ireki publikoetan eta ondoren instalazio publikoetan, urtean zehar erregulatasunaz.

Algo más de la mitad de la población de la CAPV practica deporte, y con una frecuencia superior a la media europea. Sin embargo son bastantes menos (no alcanzan a una cuarta parte de la población) quienes llevan un modo de vida activo, de acuerdo a parámetros de práctica deportiva, frecuencia, duración e intensidad.

Los deportes más practicados son andar, la natación y el ciclismo, empleando principalmente para su práctica los lugares abiertos públicos, seguidos de las instalaciones públi-

Kirola egiteko arrazoirik nagusienak hauexek dira: ariketa fisikoa egiteko, osasuna mantendu eta/edo hobetzeko eta dibertitzeko. Kirola ez egiteko gehien aiderazi diren arrazoiak, berriz, asti falta eta alferkeria edo gogo falta dira, eta nagusien kasuan, adina.

Bukatzeko, EAEko biztanle gehienak kirol guztietan euskal selekzioak izatearen aldekoak dira.

cas y realizándolos con cierta regularidad a lo largo del año.

Los principales motivos para hacer deporte son hacer ejercicio físico, mantener y/o mejorar la salud y divertirse. Por el contrario, las razones más señaladas para no hacer deporte son la falta de tiempo y la pereza o desgana y, entre los y las más mayores, la edad.

Finalmente, la mayoría de la población de la CAPV se muestra partidaria de la existencia de selecciones vascas de todos los deportes.


A - Kirolari buruzko iritziak / *Opiniones acerca del deporte*

- **Kirolzaletasuna / *Afición al deporte***
- **Kirolaren onurak / *Beneficios del deporte***
- **Kirolarekiko interesa eta praktikaren araberako tipologia / *Tipología según interés y práctica deportiva***

Kirolari buruzko iritzia / Opiniones acerca del deporte**Kirolzaletasuna / Afición al deporte**

(GUZTIZKOAK) / (TOTALES)

Kirola egin ala ez, zu kirolzalea zara? / Independientemente de que lo practique o no, ¿es Ud. una persona aficionada al deporte?		
	(16 URTE ETA GEHIAGO) (16 Y MÁS AÑOS)	
	2000KO URTARRILA ENERO 2000	2004KO APIR.-MAI. ABR.-MAY. 2004
	EAE / CAPV	
BAI, OSO KIROLZALEA / SI, MUCHO.....	39	40
BAI, APUR BAT KIROLZALEA / SI, UN POCO.....	35	35
EZ, BATERE EZ / NO, NADA.....	25	24
ED-EE / NS-NC.....	0	1
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES).....	100	100



EAeko 15 urtetik gorako herritarren hamarretik lauk (%40k) oso kirolzaleak direla diote, %35ek apur bat kirolzaleak eta %24k batera ez.

EAEn kirolzaletasuna orain dela lau urteko mailan mantentzen da.

Cuatro de cada diez ciudadanos y ciudadanas de la CAPV mayores de 15 años (40%) se declaran muy aficionados al deporte. Un 35% dice ser un poco aficionado y un 24% nada aficionado.

La afición al deporte en la CAPV se mantiene en los mismos niveles que hace cuatro años.

Kirolari buruzko iritzia / Opiniones acerca del deporte

Kirolzaletasuna / Afición al deporte

(KOLEKTIBOKA) / (POR COLECTIVOS)

Kirola egin ala ez, zu kirolzalea zara? / Independientemente de que lo practique o no, ¿es Ud. una persona aficionada al deporte?

(16 URTE ETA GEHIAGO) / (16 Y MÁS AÑOS)	2004KO APIR.-MAI. ABR.-MAY. 2004	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD				
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	16-17	18-29	30-45	46-64	≥65
Bai, oso kirolzalea / Sí, mucho	40	41	41	38	55	26	58	52	40	36	27
Bai, apur bat kirolzalea / Sí, un poco	35	34	33	39	31	39	29	29	36	39	35
Ez, batere ez / No, nada	24	25	25	22	13	35	13	18	23	25	35
Ed-Ee / Ns-Nc	1	0	2	1	1	1	0	1	0	1	3
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

	IKASKETA MAILA NIVEL DE ESTUDIOS				HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA CLASE SOCIAL SENTIDA		
	<LEHEN MAILAKOAK <PRIMARIOS	LEHEN MAILAKOAK PRIMARIOS	BIGARREN MAILAKOAK SECUNDARIOS	GOI- MAILAKOAK SUPERIORES	BAXUA BAJA	ERDIKOA MEDIA	ALTUA ALTA
Bai, oso kirolzalea / Sí, mucho	22	37	49	42	34	42	51
Bai, apur bat kirolzalea / Sí, un poco	38	35	33	36	34	36	29
Ez, batere ez / No, nada	38	28	17	21	31	21	19
Ed-Ee / Ns-Nc	3	1	1	1	1	1	1
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES)	100	100	100	100	100	100	100

- Gizonak emakumeak baino askoz kirolzaleagoak dira
- Kirolzaletasuna handiagoa da adina jaitsi ahala.
- Bigarren mailako ikasketak dituztenak besteak baino kirolzaleagoak dira.
- Kirolzaletasuna handitzen da klase sozialean igo ahala.

- Los hombres son mucho más aficionados al deporte que las mujeres.
- La afición al deporte es mayor a medida que desciende la edad.
- Quienes poseen estudios secundarios son algo más aficionados al deporte que el resto.
- La afición al deporte también aumenta a medida que se incrementa la clase social.

Kirolari buruzko iritzia / Opiniones acerca del deporte**Kirolaren onurak / Beneficios del deporte**

(GUZTIZKOAK) / (TOTALES)

Esadazu, mesedez, oso ados, nahikoa ados, ez oso ados edo batere ados ez zauden kirolari buruzko iritzi bakoitzarekin * /*Dígame, por favor, si está Ud. muy de acuerdo, bastante de acuerdo, poco de acuerdo o nada de acuerdo con cada una de las siguientes opiniones acerca del deporte **

	(16 URTE ETA GEHIAGO) (16 Y MÁS AÑOS)	(16-65 URTE / AÑOS)		
		2004KO APIR.-MAI. ABR.-MAY. 2004	1995EKO AZAROA / NOVIEMBRE 1995 **	
			2004KO APIR.-MAI. ABR.-MAY. 2004	EAE / CAPV
	EAE / CAPV	ESPAÑIAKO ESTATUA ESTADO ESPAÑOL	EAE CAPV	EAE CAPV
KIROLA EGITEAK SASOIAN JARTZEN DU. KIROLA OSASUN ITURRIA DA. / EL HACER DEPORTE TE PERMITE ESTAR EN FORMA. EL DEPORTE ES UNA FUENTE DE SALUD ...	96	96	95	97
KIROLA EGITEAK BESTEekin ERLAZIONATZEN ETA LAGUNAK EGITEN LAGUNTZEN DU / EL HACER DEPORTE PERMITE RELACIONARSE CON LOS DEMÁS Y HACER AMIGOS.....	90	88	82	91
KIROLA IHESBIDEA DA MODU ONEAN AGRESIBITEA ETA UMORE TXARRA KENTZEKO / EL DEPORTE ES COMO UNA VÁLVULA DE ESCAPE PARA LIBERAR, SALUDABLEMENTE, LA AGRESIVIDAD Y EL MAL HUMOR	87	82	80	89
KIROLA EGITEAK INTENTSITATE HANDIAGOZ BIZITZEN ETA OHIKO BIZITZAREN MONOTONIA APURTZEN LAGUNTZEN DU / EL HACER DEPORTE PERMITE VIVIR MÁS INTENSAMENTE Y AYUDA A ROMPER LA MONOTONÍA DE LA VIDA COTIDIANA	86	81	76	87
KIROLA EGITEAK BIZITZAREN ERAGOZPENAK GAINDITZEN LAGUNTZEN DU. NORBERE BURUA HEZI ETA DIZIPLINARAZTEKO BIDEA DA / EL HACER DEPORTE TE AYUDA A SUPERAR OBSTÁCULOS EN LA VIDA. ES UN MEDIO PARA EDUCARSE Y DISCIPLINARSE.....	78	72	71	79

* **BAIEZTAPEN BAKOITZAREKIN OSO ADOS EDO NAHIKOA ADOS DAUDENEN PORTZENTAJEA / PORCENTAJE DE QUIENES ESTÁN MUY DE ACUERDO O BASTANTE DE ACUERDO CON CADA AFIRMACIÓN.**** **CIS (1995): LOS HÁBITOS DEPORTIVOS DE LOS ESPAÑOLES (2198. IKERKETA). DATUAK BIRIBILDU DIRA, DEZIMALAK KENDUTA / CIS (1995): LOS HÁBITOS DEPORTIVOS DE LOS ESPAÑOLES (ESTUDIO Nº 2198). LOS DATOS HAN SIDO REDONDEADOS ELIMINANDO LOS DECIMALES**

EAEko biztalaria orokorraren (16 urte eta gehiagokoen) %96 ados daude kirola egiteak sasoiari jartzen duela eta osasun iturria delako baieztapenarekin; %90 ados daude kirola egiteak besteekin erlazionatzen eta lagunak egiten laguntzen duelakoarekin; %87 kirola modu onean agresibitatea eta umore txarra kentzeko ihesbidea delakoarekin; %86 kirola egiteak intentsitate handiagoz bizitzen eta ohiko bizitzaren monotonia apurtzen laguntzen duelakoarekin; eta %78 kirola egiteak bizitzaren eragozpenak gainditzen laguntzen duela eta norbere burua hezi eta diziplinarazteko bidea delakoarekin.

Bakarrik 16-65 urteko biztanleria kontuan hartuta, 1995ean EAE eta Estatuko datuen artean ez zegoela alde handirik dakusagu, nahiz eta EAEn gehienek horrela uste bazuten ere, ez zeuden Estatuan bezain zabaldua ondoko ideiak: kirola egiteak besteekin erlazionatzen eta lagunak egiten laguntzen duela eta intentsitate handiagoz bizitzen eta ohiko bizitzaren monotonia apurtzen laguntzen duela.

Bakarrik 16-65 urtekoekin jarraituz, EAEn 1995etik 2004ra baieztapen guztiekiko adostasuna igo dela ikusten da.

El 96% de la población general de la CAPV (16 y más años) se muestra de acuerdo con la afirmación de que el hacer deporte te permite estar en forma y es una fuente de salud; un 90% está de acuerdo con que hacer deporte permite relacionarse con los demás y hacer amigos; un 87% con que el deporte es como una válvula de escape para liberar, saludablemente, la agresividad y el mal humor; un 86% con que el hacer deporte te permite vivir más intensamente y ayuda a romper la monotonía de la vida cotidiana; y un 78% con que el hacer deporte te ayuda a superar obstáculos en la vida y es un medio para educarse y disciplinarse.

Teniendo en cuenta únicamente la población de 16-65 años, se observa que en 1995 no había grandes diferencias entre la CAPV y el Estado, si bien en la CAPV, aún siendo mayoritariamente compartidas, estaban algo menos extendidas que en el Estado las ideas de que el deporte permite relacionarse con los demás y hacer amigos y que permite vivir más intensamente y ayuda a romper la vida cotidiana.

Siguiendo sólo con quienes tienen 16-65 años, de 1995 a 2004 se observa un aumento en la CAPV de quienes comparten todas y cada una de las afirmaciones propuestas.

Kirolari buruzko iritzia / Opiniones acerca del deporte

Kirolaren onurak / Beneficios del deporte

(KOLEKTIBOKA I) / (POR COLECTIVOS I)

Esadazu, mesedez, oso ados, nahikoa ados, ez oso ados edo batere ados ez zauden kirolari buruzko iritzi bakoitzarekin * / Dígame, por favor, si está Ud. muy de acuerdo, bastante de acuerdo, poco de acuerdo o nada de acuerdo con cada una de las siguientes opiniones acerca del deporte *											
(16 URTE ETA GEHIAGO) / (16 Y MÁS AÑOS)	2004KO APIR.-MAY. ABR.-MAY. 2004	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD				
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	16-17	18-29	30-45	46-64	≥65
KIROLA EGITEAK SASOIAN JARTZEN DU. KIROLA OSASUN ITURRIA DA. / EL HACER DEPORTE TE PERMITE ESTAR EN FORMA. EL DEPORTE ES UNA FUENTE DE SALUD	96	98	96	94	96	96	99	97	97	96	92
KIROLA EGITEAK BESTEekin ERLAZIONATZEN ETA LAGUNAK EGITEN LAGUNTZEN DU / EL HACER DEPORTE PERMITE RELACIONARSE CON LOS DEMÁS Y HACER AMIGOS	90	92	90	90	90	89	95	90	90	91	86
KIROLA IHESBIDEA DA MODU ONEAN AGRESIBITEA ETA UMORE TXARRA KENTZEKO / EL DEPORTE ES COMO UNA VÁLVULA DE ESCAPE PARA LIBERAR, SALUDABLEMENTE, LA AGRESIVIDAD Y EL MAL HUMOR	87	84	87	88	88	87	92	90	89	87	82
KIROLA EGITEAK INTENSITATE HANDIAGOZ BIZITZEN ETA OHIKO BIZITZAREN MONOTONIA APURTZEN LAGUNTZEN DU / EL HACER DEPORTE PERMITE VIVIR MÁS INTENSAMENTE Y AYUDA A ROMPER LA MONOTONÍA DE LA VIDA COTIDIANA	86	85	85	88	87	85	86	87	87	86	83
KIROLA EGITEAK BIZITZAREN ERAGOZPENAK GAINDITZEN LAGUNTZEN DU. NORBERE BURUA HEZI ETA DIZIPLINARAZTEKO BIDEA DA / EL HACER DEPORTE TE AYUDA A SUPERAR OBSTÁCULOS EN LA VIDA. ES UN MEDIO PARA EDUCARSE Y DISCIPLINARSE	78	72	78	81	79	78	77	79	79	80	75

* BAIETAPEN BAKOITZAREKIN OSO ADOS EDO NAHIKOA ADOS DAUDENEN PORTZENTAJEA / PORCENTAJE DE QUIENES ESTÁN MUY DE ACUERDO O BASTANTE DE ACUERDO CON CADA AFIRMACIÓN.

Gipuzkoan Araban baino zabalduago dago kirola egiteak bizitzaren eragozpenak gainditzen laguntzen duela eta hezi eta diziplinarazteko bidea delako ideia.

Nahiz eta gehienak proposatutako baieztapenekin ados egon, 65 urte eta gehigokoek gainontzeko inkestatuek baino adostasun portzentaje txikiagoak dauzkate. 16-17 urteko nerabeak besteak baino are aldekoago agertu dira kirola egiteak besteekin erlazionatzen eta lagunak egiten laguntzen duelako baieztapenarekin.

En Gipuzkoa está más extendido que en Araba la idea de que el hacer deporte te ayuda a superar obstáculos en la vida y que es un medio para educarse y disciplinarse.

Aunque se muestran mayoritariamente de acuerdo con todas las afirmaciones propuestas, quienes tienen 65 y más años presentan menores porcentajes de acuerdo que el resto de encuestados. Los y las adolescentes de 16-17 años se muestran aún más de acuerdo que el resto con que hacer deporte permite relacionarse con los demás y hacer amigos.

Kirolari buruzko iritzia / Opiniones acerca del deporte

Kirolaren onurak / Beneficios del deporte

(KOLEKTIBOKA II) / (POR COLECTIVOS II)

Esadazu, mesedez, oso ados, nahikoa ados, ez oso ados edo batere ados ez zauden kirolari buruzko iritzi bakoitzarekin * / Dígame, por favor, si está Ud. muy de acuerdo, bastante de acuerdo, poco de acuerdo o nada de acuerdo con cada una de las siguientes opiniones acerca del deporte *											
(16 URTE ETA GEHIAGO) / (16 Y MÁS AÑOS)	2004KO APIR.-MAI. ABR.-MAY. 2004	IKASKETA MAILA / NIVEL DE ESTUDIOS				HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA CLASE SOCIAL SENTIDA			KIROLZALETASUNA AFICIÓN AL DEPORTE		
		<LEHEN MAILAKOAK <PRIMARIOS	LEHEN MAILAKOAK PRIMARIOS	BIGARREN MAILAKOAK SECUNDARIOS	GOI- MAILAKOAK SUPERIORES	BAXUA BAJA	ERDIKOA MEDIA	ALTUA ALTA	BATERE EZ NADA	APUR BAT ZALEA UN POCO	OSO ZALEA MUCHO
KIROLA EGITEAK SASOIAN JARTZEN DU. KIROLA OSASUN ITURRIA DA. / EL HACER DEPORTE PERMITE ESTAR EN FORMA. EL DEPORTE ES UNA FUENTE DE SALUD	96	92	96	97	96	94	96	98	89	98	98
KIROLA EGITEAK BESTEekin ERLAZIONATZEN ETA LAGUNAK EGITEN LAGUNTZEN DU / EL HACER DEPORTE PERMITE RELACIONARSE CON LOS DEMÁS Y HACER AMIGOS	90	83	91	91	89	86	92	88	79	91	95
KIROLA IHESBIDEA DA MODU ONEAN AGRESIBITATEA ETA UMORE TXARRA KENTZEKO / EL DEPORTE ES COMO UNA VÁLVULA DE ESCAPE PARA LIBERAR, SALUDABLEMENTE, LA AGRESIVIDAD Y EL MAL HUMOR	87	83	87	89	88	82	89	91	75	88	95
KIROLA EGITEAK INTENSITATE HANDIAGOZ BIZITZEN ETA OHIKO BIZITZAREN MONOTONIA APURTZEN LAGUNTZEN DU / EL HACER DEPORTE PERMITE VIVIR MÁS INTENSAMENTE Y AYUDA A ROMPER LA MONOTONÍA DE LA VIDA COTIDIANA	86	82	86	87	85	81	88	90	72	87	93
KIROLA EGITEAK BIZITZAREN ERAGOZPENAK GAINDITZEN LAGUNTZEN DU. NORBERE BURUA HEZI ETA DIZIPLINARAZTEKO BIDEA DA / EL HACER DEPORTE TE AYUDA A SUPERAR OBSTÁCULOS EN LA VIDA. ES UN MEDIO PARA EDUCARSE Y DISCIPLINARSE	78	75	78	79	80	74	80	85	66	77	87

* BAEZTAPEN BAKOITZAREKIN OSO ADOS EDO NAHIKOA ADOS DAUDENEN PORTZENTAJEA / PORCENTAJE DE QUIENES ESTÁN MUY DE ACUERDO O BASTANTE DE ACUERDO CON CADA AFIRMACIÓN.

Aztertutako kolektibo guztietan gehienak ados daude proposatutako baieztapenekin. Dena dela, alde batzuk aipa daitezke taldeen artean:

- Lehen mailako ikasketak baino baxuagoak dituztenek gainontzekoek baino adostasun txikigoa adierazi dute.
- Klase sozial erdiko edo altuko pertsonen klase baxukoek baino adostasun handiagoa adierazi dute kirolari buruzko baieztapen guztiekin.
- Kirolzaletasuna igo ahala, handitu egiten da proposatutako baieztapenekiko adostasuna.

Todos los colectivos analizados se muestran mayoritariamente de acuerdo con cada una de las afirmaciones propuestas. En cualquier caso, se pueden comentar algunas diferencias entre grupos:

- Las personas que no alcanzan los estudios primarios se muestran algo menos de acuerdo que el resto.
- Las personas que se consideran de clase social media o alta presentan mayor acuerdo que quienes se definen de clase social baja con todas las afirmaciones sobre el deporte.
- A medida que aumenta la afición al deporte se incrementa el acuerdo con las distintas afirmaciones propuestas.

Kirolari buruzko iritzia / Opiniones acerca del deporte**Kirolarekiko interesa eta praktikaren arabera tipologia /
Tipología según interés y práctica deportiva**

(GUZTIZKOAK) / (TOTALES)

Kirolarekiko interesa eta praktikari dagokienez, biztanleak sei multzotan banatzen dira. Zeure burua zeinetan ikusten duzu?

Con respecto al interés por el deporte y a su nivel de práctica, se pueden considerar seis grupos de población, ¿con cuál de ellos se identifica Ud. más?

	(16 URTE ETA GEHIAGO) (16 Y MÁS AÑOS)	(16-65 URTE / AÑOS)		
	2004KO APIR.-MAI. ABR.-MAY. 2004	1995EKO AZAROA / NOVIEMBRE 1995 *	2004KO APIR.-MAI. ABR.-MAY. 2004	
	EAE CAPV	ESPAINIAKO ESTATUA ESTADO ESPAÑOL	EAE CAPV	EAE CAPV
KIROLA INTERESATZEN ZAIZU ETA NAHIOKA EGITEN DUZU / LE INTERESA EL DEPORTE Y LO PRACTICA SUFICIENTEMENTE.....	27	16	20	29
KIROLA INTERESATZEN ZAIZU BAINA EZ DUZU NAHI DUZUN BESTE EGITEN / LE INTERESA EL DEPORTE, PERO NO LO PRACTICA TANTO COMO QUISIERA.....	27	22	18	30
KIROLA INTERESATZEN ZAIZU, LEHEN EGITEN ZENUEN BAINA ORAIN EZ DUZU EGITEN / LE INTERESA EL DEPORTE, LO HA PRACTICADO PERO AHORA YA NO LO PRACTICA.....	21	26	21	20
EZ DUZU EGITEN ETA EZ ZAIZU INTERESATZEN / NO LO PRACTICA NI LE INTERESA.....	16	21	23	14
INOIZ EZ DUZU KIROLA EGIN BAINA GUSTATUKO LITZAIZUKE / NUNCA HA PRACTICADO DEPORTE, PERO LE GUSTARÍA HACERLO.....	5	14	17	5
KIROLA EZ ZAIZU INTERESATZEN BAINA BEHARTUTA EGITEN DUZU (GAIXOTASUNAGATIK, KLASENGATIK, LANAGATIK,...) / NO LE INTERESA EL DEPORTE, PERO LO PRACTICA POR OBLIGACIÓN (ENFERMEDAD, CLASES, TRABAJO...).....	3	1	1	3
Ed-Ee / Ns-Nc.....	0	0	0	0
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES).....	100	100	100	100

* CIS (1995): LOS HÁBITOS DEPORTIVOS DE LOS ESPAÑOLES (2198. IKERKETA). DATUAK BIRIBILDU DIRA, DEZIMALAK KENDUTA / CIS (1995): LOS HÁBITOS DEPORTIVOS DE LOS ESPAÑOLES (ESTUDIO Nº 2198). LOS DATOS HAN SIDO REDONDEADOS ELIMINANDO LOS DECIMALES

16 urte eta gehigoko biztanleria orokorraren %27k kirola interesatzen zaiela eta nahioka egiten dutela diote, beste horrenbestek (%27k) kirola interesatzen zaiela baina ez dutela nahi duten beste egiten diote eta beste %21ek kirola interesatzen zaiela, lehen egiten zutela baina orain ez dutela egiten baieztatu dute. Oro har, biztanleriaren %75ek, nahiz eta gehiago edo gutxiago praktikatu, kirola interesatzen zaiela diote. Bestalde, biztanleriaren %16k ez dutela kirola egiten eta ez zaiela interesatzen adierazi dute, %5ek inoiz ez dutela kirola egin baina gustatuko litzaiekela diote eta %3k kirola ez zaiela interesatzen baina behartuta (gaixotasunagatik, klaseengatik, lanagatik,...) egiten dutela aitortu dute.

16-65 urteko biztanleriari dagokionez, 1995ean ez zegoela alde handirik EAE eta Estatuaren artean ikus dezakegu (nahiz eta EAEn apur bat gutxiago izan ondokoak: kirolarekiko interesa zutela baina ez zutela nahi zuten beste egiten edo lehen egiten zutela baina jadanik ez dutela egiten diotenak). 1995etik 2004ra nahioka igo da kirola interesatzen zaiela eta nahioka egiten dutela edo, nahiz eta interesatu, ez dutela nahi beste egiten diotenen kopurua.

Un 27% de la población general de 16 y más años señala que le interesa el deporte y lo practica suficientemente, otro tanto (27%) dice que le interesa el deporte pero no lo practica tanto como quisiera y otro 21% afirma que le interesa el deporte, lo ha practicado pero ahora ya no lo practica. En general, un 75% de la población señala que le interesa el deporte, lo practique en mayor o menor medida. Por otro lado, hay un 16% de la población que señala que no practica deporte ni le interesa, un 5% que nunca lo ha practicado pero le gustaría hacerlo y un 3% que no le interesa el deporte pero lo practica por obligación (enfermedad, clases, trabajo, etc).

Si nos ceñimos únicamente a quienes tienen entre 16 y 65 años, observamos que en 1995 no había grandes diferencias entre la CAPV y el Estado (si bien en la CAPV eran algunos menos quienes señalaban que les interesaba el deporte pero no lo practicaban tanto como quisieran o que lo habían practicado anteriormente pero ya no lo practicaban). De 1995 a 2004 ha aumentado considerablemente en la CAPV el número de quienes señalan que les interesa el deporte y lo practican suficientemente o, aún interesándoles, no lo practican tanto como quisieran.

Kirolari buruzko iritzia / Opiniones acerca del deporte

Kirolarekiko interesa eta praktikaren arabera tipologia / Tipología según interés y práctica deportiva

(KOLEKTIBOKA I) / (POR COLECTIVOS I)

Kirolarekiko interesa eta praktikari dagokienez, biztanleak sei multzotan banatzen dira. Zeure burua zeinetan ikusten duzu? Con respecto al interés por el deporte y a su nivel de práctica, se pueden considerar seis grupos de población, ¿con cuál de ellos se identifica Ud. más?											
(16 URTE ETA GEHIAGO) / (16 Y MÁS AÑOS)	2004KO APİR.-MAI. ABR.-MAY. 2004	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD				
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	16-17	18-29	30-45	46-64	≥65
KIROLA INTERESATZEN ZAIZU ETA NAHIKOA EGITEN DUZU / LE INTERESA EL DEPORTE Y LO PRACTICA SUFICIENTEMENTE	27	25	25	32	33	22	50	34	25	25	22
KIROLA INTERESATZEN ZAIZU BAINA EZ DUZU NAHI DUZUN BESTE EGITEN / LE INTERESA EL DEPORTE, PERO NO LO PRACTICA TANTO COMO QUISIERA	27	32	25	30	30	25	17	32	33	27	18
KIROLA INTERESATZEN ZAIZU, LEHEN EGITEN ZENUEN BAINA ORAIN EZ DUZU EGITEN / LE INTERESA EL DEPORTE, LO HA PRACTICADO PERO AHORA YA NO LO PRACTICA	21	21	23	16	21	20	13	20	21	20	23
EZ DUZU EGITEN ETA EZ ZAIZU INTERESATZEN / NO LO PRACTICA NI LE INTERESA	16	14	18	14	10	22	8	10	13	19	25
INOIZ EZ DUZU KIROLA EGIN BAINA GUSTATUKO LITZAIZUKE / NUNCA HA PRACTICADO DEPORTE, PERO LE GUSTARÍA HACERLO	5	5	6	4	4	6	2	2	7	5	7
KIROLA EZ ZAIZU INTERESATZEN BAINA BEHARTUTA EGITEN DUZU (GAIXOTASUNAGATIK, KLASENGATIK, LANAGATIK,...) / NO LE INTERESA EL DEPORTE, PERO LO PRACTICA POR OBLIGACIÓN (ENFERMEDAD, CLASES, TRABAJO...)	3	3	3	4	2	4	11	1	2	3	5
ED-Ee / Ns-Nc	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Kirola interesatzen zaiela eta nahikoa egiten dutela gehien diotenak ondokoak dira: gipuzkoarrak, gizonezkoak eta gazteenak (izatez, zenbat eta gazteagoa izan orduan eta jende gehiago dago kategorian horretan).

Kirola interesatzen zaiela baina ez dutela nahi beste egiten diotenak apur bat gehiago dira Araban eta Gipuzkoan, gizonezkoen artean eta 18-45 urte dituztenen artean.

Bizkaitarrek eta 64 urtetik gorakoek gainontzekoek baino zertxobait gehiago adierazi dute, nahiz eta kirola interesatu eta lehen egin, orain ez dutela egiten.

Kirola ez zaiela interesatzen eta ez dutela egiten gehien diotenak emakumeak eta 64 urteko gorakoak dira (izatez, adina igo ahala jende gehiago dago kategorian horretan, 65 urte eta gehiago dutenen artean laurdena izanik).

Azkenik, interesik ez izan arren, behartuta egiten dutela gehien diotenak 16-17 urteko gaztetxoak dira.

Quienes señalan que les interesa el deporte y lo practica suficientemente son más en Gipuzkoa, entre los varones y entre los y las más jóvenes (de hecho, a medida que desciende la edad aumenta el número de personas que se acogen a esta categoría).

Quienes afirman que les interesa el deporte pero que no lo practican tanto como quisieran son algunos más en Araba y Gipuzkoa, entre los varones y entre quienes tienen entre 18 y 45 años.

Las y los vizcaínos y las y los mayores de 64 años señalan algo más que el resto que, aunque les interesa el deporte y lo han practicado, ya no lo practican.

Quienes más dicen no practicar ni tener interés por el deporte son las mujeres y las y los mayores de 64 años (de hecho, a medida que aumenta la edad hay más gente que se acoge a esta categoría hasta alcanzar a una cuarta parte de quienes tienen 65 y más años).

Por último, quienes más dicen practicar deporte por obligación, pese a no tener ningún interés, son las y los jóvenes de 16-17 años.

Kirolari buruzko iritzia / Opiniones acerca del deporte

Kirolarekiko interesa eta praktikaren arabera tipologia / Tipología según interés y práctica deportiva

(KOLEKTIBOKA II) / (POR COLECTIVOS II)

Kirolarekiko interesa eta praktikari dagokienez, biztanleak sei multzotan banatzen dira. Zeure burua zeinetan ikusten duzu?

Con respecto al interés por el deporte y a su nivel de práctica, se pueden considerar seis grupos de población, ¿con cuál de ellos se identifica Ud. más?

(16 URTE ETA GEHIAGO) / (16 Y MÁS AÑOS)	2004ko APir.-Mai. Abr.-May. 2004	IKASKETA MAILA / NIVEL DE ESTUDIOS				HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA CLASE SOCIAL SENTIDA			KIROLZALETASUNA AFICIÓN AL DEPORTE		
		<LEHEN MAILAKOAK <PRIMARIOS	LEHEN MAILAKOAK PRIMARIOS	BIGARREN MAILAKOAK SECUNDARIOS	GOI- MAILAKOAK SUPERIORES	BAXUA BAJA	ERDIKOA MEDIA	ALTUA ALTA	BATERE EZ NADA	APUR BAT ZALEA UN POCO	OSO ZALEA MUCHO
KIROLA INTERESATZEN ZAIZU ETA NAHIKOA EGITEN DUZU / LE INTERESA EL DEPORTE Y LO PRACTICA SUFICIENTEMENTE	27	19	25	31	31	21	30	29	2	24	45
KIROLA INTERESATZEN ZAIZU BAINA EZ DUZU NAHI DUZUN BESTE EGITEN / LE INTERESA EL DEPORTE, PERO NO LO PRACTICA TANTO COMO QUISIERA	27	21	23	31	33	22	29	37	8	39	29
KIROLA INTERESATZEN ZAIZU, LEHEN EGITEN ZENUEN BAINA ORAIN EZ DUZU EGITEN / LE INTERESA EL DEPORTE, LO HA PRACTICADO PERO AHORA YA NO LO PRACTICA	21	16	22	21	19	21	21	17	21	22	20
EZ DUZU EGITEN ETA EZ ZAIZU INTERESATZEN / NO LO PRACTICA NI LE INTERESA	16	31	19	10	11	24	13	13	54	6	1
INOIZ EZ DUZU KIROLA EGIN BAINA GUSTATUKO LITZAIZUKE / NUNCA HA PRACTICADO DEPORTE, PERO LE GUSTARÍA HACERLO	5	6	7	4	4	8	5	3	9	5	3
KIROLA EZ ZAIZU INTERESATZEN BAINA BEHARTUTA EGITEN DUZU (GAIXOTASUNAGATIK, KLASEENGATIK, LANAGATIK,...) / NO LE INTERESA EL DEPORTE, PERO LO PRACTICA POR OBLIGACIÓN (ENFERMEDAD, CLASES, TRABAJO...)	3	6	4	2	1	4	3	1	6	3	1
Ed-Ee / Ns-Nc	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Kirola interesatzen zaiela eta nahikoa egiten dutela gehiago esan dute bigarren mailako edo goi-mailako ikasketak dituztenek (jarrera hori gero eta zabaldago dago ikasketa maila igo ahala), klase sozial erdikoak edo altukoak sentitzen direnek eta, batez ere, oso kirolzaleak direla diotenek.

Kirola interesatzen zaiela baina ez dutela nahi duten beste egiten diotenak gehiago dira ikasketa maila eta/edo hautemandako klase soziala igo ahala. Gehiago dira ere apur bat kirolzaleak direla dioten artean.

Kirola ez dutela egiten eta ez zaiela interesatzen gehien diotenak ondokoak dira: lehen mailako ikasketak baino baxuagoak dituztenak, klase sozial baxukoak eta, batez ere, batere kirolzaleak ez direnak.

Zenbat eta klase soziala baxuagoa izan eta/edo kirolzaletasun txikiagoa izan orduan eta jende gehiagok diote ez dutela kirola egiten baina gustatuko litzaiekela, edo kirola ez zaiela interesatzen baina behartuta egiten dutela (azken jarrera hori gero eta zabaldago dago ere ikasketa mailan jaitsi ahala).

